



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – NEGUA 2018-19

Prezipitazioari dagokionez negua ohikoa izan zen, eta tenperaturari dagokionez, beroa edo oso beroa. Abenduan muturreko egoerak urriak izan ziren, urtarrilean, ordea, giroa ezegonkorragoa izan zen eta orduan igorri ziren neguko alerta laranja gehienak; gehienak itsaso zakarragatik. Bestalde, aipagarriak izan ziren urtarrilaren 23tik 25era eta 31n prezipitazio iraunkorrari loturiko gertaerak, batez ere ibaien maileri zegokienez. Otsailaren hasieran iparraldeko denboral gogorra izan zen, haize indartsuarekin, itsaso zakarrarekin eta elurrarekin kota baxu-ertainetan. Otsailaren bigarren partean, ordea, eguraldiak udaberriko itxura hartu zuen, urteko sasoi horretan erabat ezohikoak diren tenperatura maximo oso altuekin; horrela, hilaren 27an sareko marka guztiak hautsi ziren, 3.5 °C-ko anomalia positiboarekin.

Prezipitazioa

Prezipitazioari dagokionez negua ohikoa izan zen, 1981-2010 erreferentziazko denboraldiarekin alderatuz; kostaldean batezbestekoa baino balio txikiagoekin, eta Gipuzkoako barnealdeko eta Arabako iparraldeko zenbait lekutan handiagoekin. Zonalderik euritsuena Gipuzkoa ekialdea izan zen, Nafarroako mugan, bertan 500 mm baino gehiago pilatu zen (Berastegi 729.4 mm, Ameraun 686.7 mm, Eskas 646.9 mm, Añarbe 583.4 mm, Bidania 506.4 mm). 500 mm horietatik hurbil geratu ziren Gipuzkoa barnealdeko beste zenbait estazio (Ibai Eder 494.3 mm, Aitzu 460.4 mm), baita isurialdeen banalerro inguruko beste batzuk ere (Arrasate 453.4 mm, Gorbea 449.6 mm, Zegama 444.3 mm, Sarria 436.9 mm). Kostaldean, ordea, prezipitazioa ohikoa dena baino urriagoa izan zen, 200-300 mm artekoa (Zarautz 236.38 mm, Galindo 261.1 mm, Almike 266.9 mm). Prezipitazio urriena Ebro ibarrean izan zen, 150 mm baino gutxiago pilatu zen (Moreda 88.3 mm, Zambrana 110.3 mm, Páganos 138.1 mm). Edozein kasutan, prezipitazio-datu horiek aurreko negukoak baino askoz txikiagoak izan ziren, batez ere kantauri isurialdean, han bikoitza pilatu baitzen aurreko neguan.

Neguan kontraste handiak izan ziren. Izan ere abendua oso lehorra izan zen, urtarrila oso hezea (isurialdeen banalerroan erabat hezea) eta otsaila, berriz, lehorra.

Neguko euri-egunen (1 mm baino gehiago, alegia) kopurua ohikoa izan zen. Bilbon eta Donostian 35 inguru izan ziren, Gasteizen, berriz, 26 inguru. Gehienak urtarrilaren azken herenean eta otsailaren hasieran izan ziren, ordura arte balantzea negatiboa izaten ari zen.

Hilaren 23tik 25era neguko egunik euritsuena izan genituen. Hiru egun horietan prezipitazioa oso ugaria izan zen, eta EAEko zenbait lekutan 150 mm baino gehiago pilatu ziren (Berastegi 200.9 mm, Cerroja 174.6 mm, Ameraun 164.9 mm, Ibai Eder 155.6 mm, Bidania 153.1 mm, Gorbea 145.6 mm), zenbait



kasutan hilabete osoan pilatu ohi dena edo gehiago. Gainera, aurretik, hilaren 22an, elurra egin zuen. Elur-kota Araba ekialdean eta Gipuzkoa barnealdean 500-600 m inguruan egon zen, adibidez Aguraingo koadrila inguruan elurra egin zuen. Horrela, barnealdeko mendi inguruetan elur-lodiera handiak pilatu ziren.

Pilatutako prezipitazio kopuru handien ondorioz, hilaren 23an, azken orduetan, eta hilaren 24an, goizean, zenbait estaziotan maila laranja iritsi ziren, batez ere arro-buruetan, bai mediterraneo isurialdean: Zadorra (Ozaeta 1.98 m 04:10ean, Etura 2.80 m 06:20an) eta Baia (Sarria 1.66 23:10ean), bai kantauri isurialdean: Nerbioi (Saratxo 2.35 m 09:00etan), Ibaizabal (Zeanuri 3.17 08:30ean) eta Kadagua (Sodupe-Cadagua 1.86 m 08:40an, Aranguren 3.79 m 07:50ean).

Urtarrilaren 31a EAE osoan neguko bigarren egunik euritsuena izan zen, kostaldeko eta Araba hegoaldeko zenbait tokitan euritsuena. EAE osoan egin zuen euria; Kantauri isurialdearen barnealdean 40 mm baino gehiago pilatu ziren (Zegama 58.5 mm, Eskas 48.8 mm, Berna 47.9 mm, Amorebieta 47.5 mm, Berastegi 45 mm, Lasarte 44.9 mm) eta Araba iparraldean 25 mm baino gehiago (Abetxuko 35.2 mm, Salvatierra 25.6 mm).

Azken orduetan errekek gainezka egiten hasi ziren berriro ere eta zenbait aforo-estaziotan maila laranja iritsi ziren: Urkulu (0.45 m) eta San Prudentzio (1.22 m) Deba arroan; Alegia (1.41 m) Oria arroan. Bestalde, Ullibarri urtegia hustutzen hasi ziren, eta otsailaren 1ean Abetxuko estazioan Zadorra ibaiak maila laranja gainditu zuen (2.62 m). Hilaren 2an, goizean, Kadagua arroan hiru aforo-estaziotan maila horira ailegatu ziren (Balmaseda 2.12 m 06:00etan, Aranguren 3.48 m 07:00etan, Sodupe-Cadagua 1.76 m 07:20an).

Elurrari dagokionez, abenduan ez zen gertaerarik izan. Urtarrilean, berriz, 4 izan ziren, baina kota ertain-altuetan. Hilaren 9an, azken orduetan, igorri zen lehenengo abisua, baina aipagarriagoa izan zen hilaren 22tik 24ra igorritakoa, batez ere hilaren 22koa. Hilaren 27an eta 28an ere elurra egin zuen 1000 metrotik behera. Hilaren 29an, arratsalde-gau partean, berriro ere elur kontuan izan genituen. Otsailaren hasieran denboralea izan genuen eta kota baxu-ertainetan egin zuen elurra. Hilaren 2an, arratsalde-gau partean, 300-400 m ingurura jaitsi zen elur-kota, eta ekaitz-guneetan beherago. Hilaren 3an, goizaldean, elurra egiten jarraitu zuen, baina aterruneak ere izan ziren. Egun haietan Arabako Lautadaren ekialdean eta isurialdeen banalerroan 5-10 cm inguru pilatu ziren.

Bukatzeko, aipatu behar da hilaren 11tik aurrera ez zuela euririk egin, hilaren 18an eta 19an izan ezik, egun horietan zaparrada txiki batzuk bota zituen Bizkaia mendebaldean.



1 Taula. Azken urteetan neguan pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	214.9	657.7	284.8	369.9	594.1	274.7	639.8	225.3	237.4	294
Lasarte	435.4	820.4	344.5	452.7	778.2	536.7	805.4	378.4	345.9	377.3
Arrasate	453.4	886.9	441.0	514.2	1026.2	458.6	918.3	421.9	335.6	391.6
Abetxuko	235.9	357.9	158.9	243.9	439.5	208.4	405.6	134.1	164.5	208
Párganos	138.1	124.9	109.0	188.6	212.1	107.9	240.5	70.2	102.5	166.6

Temperatura

Temperaturari dagokionez, negua beroa edo oso beroa izan zen. Batez besteko temperatura kostaldean 10 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 6 °C ingurukoa, hau da, lurralde osoa kontuan hartuz, ohikoa dena baino 1 °C altuagoa. Hala eta guztiz ere, mende honetan negu beroagoak izan dira, batez ere 2015-2016koa.

Prezipitazioarekin gertatu zen bezala, hilabete batetik bestera alde handiak izan ziren tenperaturari. Urtarrila hotza edo oso hotza izan zen, aldiz abendua eta otsaila, beroak edo oso beroak izan ziren.

Egunik hotzenak urtarrilaren 4tik 6ra bitartekoak izan ziren. Egun horietan anplitude termikoa handia izan zen eta tenperaturaren inbertsioa ere bai. Barnealdeko hainbat lekutan izotz handi-gogorra egin zuen (hilaren 5ean, Ozaeta -8.7 °C, Trebiño -7.9 °C, Albaina -8.4 °C, Balmaseda -6.3 °C, Berastegi -5.7 °C, Arrasate -5.4 °C), kostaldeko zenbait lekutan ere izotz txikia egin zuen (hilaren 5ean Arteaga -2.8 °C, Deusto -0.5 °C, Miramon -0.7 °C).

Izotz-egunen kopurua ohikoa izan zen Arabako Lautadan, ez ordea Arabako Errioxan, ezta kostaldean ere, bi zonalde horietan izotz-egunen kopurua ohikoaren erdia izan zen.

Egun beroei dagokienez, gogoratu behar dugu otsailaren 4tik aurrera ia egun guztietan tenperatura batezbestekotik gorakoa izan zela, zenbait egunetan 5 °C-tik gorako anomaliarekin, batez ere kantauri isurialdean. Beroaldiak hilaren 27an jo zuen gailurra; EAE osoan tenperatura errekorrak izan genituen; kantauriko bailaretan eta kostaldean 25 °C-tik gorakoak izan ziren tenperatura maximoak, eta Gipuzkoa barnealdeko zenbait lekutan 30 °C-ra hurbildu ziren (Ibai Eder 29.9 °C, Alegia 29.2 °C), baita kostaldetik hurbil dauden estazioetan ere, Donostiakoa barne (Miramon 28.8 °C, Oleta 28.3 °C). Bilbo inguruan ere tenperatura maximoak 25 °C-tik gorakoak izan ziren (Derio 27.1 °C, Abusu 25.4 °C). Vitoria-Gasteizen 22 °C-tik gorakoak (Abetxuko 22.6 °C).

Temperatura altuez gain, intsolazioa ere ohikoa dena baino altuagoa izan zen, batez ere mediterraneo isurialdean, % 40-50 altuagoa (Gasteizen 398.2 h). Otsaila izan zen intsolazioan ekarpen handiena egin zuen hilabetea.



Taula 2: Neguan, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	10.1	8.7	10.8	12.9	9.3	11.4	10.5	9.5	10.2	9.7
Lasarte	9.4	7.9	8.9	11.5	7.8	10.1	8.9	7.9	8.9	8.3
Arrasate	7.3	5.7	6.7	8.7	5.4	7.6	6.5	5.6	6.5	6.8
Abetxuko	5.5	4.5	4.8	6.4	4.2	6.0	5.3	4.5	4.7	4.7
Párganos	5.7	5.0	5.7	6.7	4.7	5.7	5.8	5.3	5.2	4.2






Neguko oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: Neguko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako auri max. l/m ²	Euri- egunak.
Deusto	10.1	14.4	25.9	6.9	-0.5	2	214.9	26.9	25
Lasarte	9.4	13.6	28.1	5.8	-1.0	4	435.4	44.9	31
Arrasate	7.3	12.5	26.2	3.2	-5.4	10	453.4	69.7	31
Abetxuko	5.5	11.2	22.6	0.8	-7.6	34	235.9	35.2	22
Párganos	5.7	10.0	22.0	1.9	-2.8	25	138.1	23.0	15




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




■ Pilatutako prezipitazioa
 —●— Temperatura minimoa
 — Batez besteko temperatura
 —■— Temperatura maximoa

Prezิปitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezิปitazio normala
Precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Muturreko egoerak

Neguan 81 abisu hori igorri ziren: 7 prezipitazio iraunkorragatik, 13 elurragatik, 12 haizeagatik haizeguneetan, 2 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 16 olatuen altueragatik nabigaziorako, 17 itsasaldeko arriskuagatik eta 14 izotzagatik.

Era berean, 13 alerta laranja igorri ziren: 2 prezipitazio iraunkorragatik, 3 elurragatik, 6 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 2 itsasaldeko arriskuagatik.

Ondoren gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Abendua

- Hilaren 9an olatuen altuera adierazgarria 3.5 metrotik gora kokatu zen. Arratsaldea aurrera joan ahala gero eta altuagoa izan zen, gauean 4.5 m ingurukoa (Pasaiako Portua, 4.4 m 23:00etan). Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen, gauean 4 m-koak. Olatuen arteko periodoa 14 s-koa izan zen; arratsaldean igo egin zen eta azken orduetan 19-20 s ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko haizea ibili zen, 3-4ko indarrarekin, arratsaldearen hasieran 5eko tarteekin. Itsaskirria edo itsaskia eragin zuen haize horrek, arratsaldearen hasieran itsaski handiko guneekin.

Igandea, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 10ean, goizaldean, olatuen altuera adierazgarria 4.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 18-17 s-koa (Pasaiako Portuan, 4.44 m 00:50ean). Itsasgora 06:04an (ordu lokala) 4.19 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.3$ m eta $I_{max}=7$ m. Eguna aurrera joan ahala olatuen altuera adierazgarria jaitsi egin zen; gauean 2-2.5 m ingurukoa izan zen. Egunaren lehenengo partean ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3-3.5 m inguruko olatuak altxatu zituen, bigarren partean jaitsi eta gauean 2-2.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 15-14 s-koa. Haizea aldakor ibili zen, 2-3ko indarrarekin, arratsaldean eki-osagaira aldatu eta 3-4ko indarrarekin ibili zen. Itsaskirria edo itsaskia eragin zuen.

Astelehena, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 05etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala

- Hilaren 18an Bizkaiko haizeguneetan hego-osagaiko haize-boladek 100 km/h abiadura gainditu zuten (Matxitxako 144 km/h, Arboleda 118.1 km/h, Cerroja 114.1 km/h, Oiz 112.3 km/h, Orduña 105.5 km/h, La Garbea 100.1 km/h), baita lurralde osoan sakabanatutako haizeguneak ez diren zenbait tokitan ere (Gardea 81.4 km/h, Zizurkil 80.6 km/h).



Asteartea, hilak 18: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 15etara ordu lokala.

Urtarrila

- Hilaren 23an kantauriko bailaretan eta kantauriko mendilerroan prezipitazio ertaina, iraunkorra eta oso ugaria egin zuen. Gipuzkoa ekialdean eta barnealdean, isurialdeen arteko banalerro inguruan eta Enkarterrietan 60 mm baino gehiago pilatu ziren hainbat estaziotan. Berastegin eta Cerrojan prezipitazioaren intentsitatea 10 mm/h baino handiagoa izan zen (10.3 mm/h eta 10.7 mm/h, hurrenez hurren). Hilaren 24an prezipitazioaren banaketa antzekoa izan zen, baina prezipitazioa urriagoa izan zen. Hala eta guztiz ere, EAeko mendebaldeko zenbait lekutan 60 mm baino gehiago pilatu ziren. Hilaren 25ean maximoak EAeko beste muturrean izan ziren.

Estazioa	23	24	25
Cerroja	92.5	67.7	14.4
Ibai Eder	89.3	50.3	16
Gorbea	87.9	49.4	8.3
Berastegi	83.9	40.8	76.2
Ameraun	80.4	30.2	54.3
Aitzu	76	43.1	16.6
Sarria	71.8	33.7	11.8
Arrasate	69.7	39.1	20
Zegama	69.2	37.2	11.1
Bidania	68.4	40.9	43.8
Altube	67.4	37.6	7.1
Orduña	66	61.2	9.6
Añarbe	65.2	11.6	42.9
Ordizia	64	28.7	12.8
Urkiola	63.3	44.8	9.7
Otxandio	63.1	40.2	25.9
Araxes	61	37.6	23.2
Oñati	60	30.9	9.6
Aixola	60	31.6	14.4

Asteazkena, hilak 23: Alerta Laranja prezipitazio iraunkoragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkoragatik Araban 00etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 24: Alerta Laranja prezipitazio iraunkoragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkoragatik Bizkaian 12etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 23an olatuen altuera adierazgarria 5.5 m ingurukoa izan zen, azken orduetan 5 m-koa. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m-ko olatuak



altxatu zituen, eguerdirik aurrera 4-4.5 m-koak, olatuen arteko periodoa 14-15 s-koa. Ipar-mendebaldeko haizeak, 7ko indarrarekin, itsaso oso zakarra eragin zuen, batez ere egunaren lehenengo partean. Itsasgora 18:27an (ordu lokala) 4.78 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.6$ m eta $I_{max}=7.1$ m.

Asteazkena, hilak 23: Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 17etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 24an, goizaldean, olatuen altuera adierazgarria 4-5 m-koa izan zen, goizean jaitsi eta eguerdian 3 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m inguruko olatuak altxatu zituen, goizean jaitsi eta eguerdian 2 m-koak altxatu zituen. Olatuen arteko periodoa, 14 s-koa. Ipar-osagaiko haizea ibili zen, 5eko indarrarekin, eta itsaski handia eragin zuen. Itsasgora 06:44an (ordu lokala) 4.93 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.6$ m eta $I_{max}=7.2$ m.

Osteguna, hilak 24: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 09etara ordu lokala. Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 06etatik 08etara ordu lokala.

- Hilaren 27an, goizean goiz, olatuen altuera 3.5 m ingurukoa izan zen, baina azkar igo egin zen 5 m-ra. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2 m-ko olatuak altxatu zituen, gero 3-4 m-koak. Olatuen arteko periodoa, 9-11 s-koa. Mendebal-osagaiko haizeak, 6-7ko indarrarekin, itsaso zakarra edo oso zakarra eragin zuen. 9etatik aurrera olatuen altuera adierazgarria 5-7 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m-ko olatuak altxatzen jarraitu zuen, olatuen arteko periodoa 11-14 s-koa zela. Gaueko itsasgoran (21:45ean ordu lokala) gainezka egiteko indizeak $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.5$ m ingurukoak izan ziren. Goizean, arratsaldean eta gauean, olatuen ezaugarriak zirela eta, pasealeku eta malekoietan zipriztinak eta olatu-zaparrak izan ziren, bereziki itsasgoren inguruan.

Igandea, hilak 27: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 06etatik 09etara ordu lokala. Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 09etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 09etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 28an olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izan zen gauera arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen eta olatuen arteko periodoa 14-11 s-koa izan zen. Mendebal-osagaiko haizea ibili zen, 6-7ko indarrarekin, eta itsaso zakarra edo oso zakarra eragin zuen. Gainezka egiteko indizeak muturreko balioak baino baxuagoak izan arren (lehenengo itsasgoran, 10:14an ordu lokala, $I=5.7$ m eta $I_{max}=6.2$ m), olatuen ezaugarriak zirela eta, pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak izan ziren, bereziki itsasgoraren unean. Gauean olatuen altuera adierazgarria 5 m ingurukoa izan zen, azken orduetan 3.5 m ingurukoa. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak



altxatzen jarraitu zuen. Olatuen arteko periodoa 11 s-koa izan zen. Mendebal-osagaiko haizeak, 5-6ko indarrarekin, itsaski handia edo itsaso zakarra eragin zuen.

Astelehena, hilak 28: Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 18etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 29an, arratsaldean, olatuen altuera adierazgarria 3.5 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen. Mendebal-osagaiko haizea ibili zen, 5-6ko indarrarekin, eta itsaski handia edo itsaso zakarra eragin zuen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatzen jarraitu zuen, egunaren amaieran 3.5-4 m-koak. Olatuen arteko periodoa 12 s-koa izan zen. Mendebal-osagaiko haizea ibili zen, 7-8ko indarrarekin, eta itsaso oso zakarra edo itsaso handia eragin zuen.

Asteartea, hilak 29: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 18etara ordu lokala. Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 18etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 30ean, goizaldean, olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izan zen. Goizaldean ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3.5 m-ko olatuak altxatu zituen, olatuen arteko periodoa 12 s-koa izan zen. Mendebal-osagaiko haizea ibili zen, 6-7ko indarrarekin, eta itsaso zakarra edo oso zakarra eragin zuen. Goizean olatuen altuera adierazgarria 4-5 m ingurukoa izan zen; eguna aurrera joan ahala jaitsi eta gauean 3-3.5 m-koa izan zen. Goizean ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen, gero jaitsi eta gauean 2.5 m ingurukoak altxatu zituen. Olatuen arteko periodoa 13 s-koa izan zen. Mendebal-osagaiko haizea ibili zen, 5-6ko indarrarekin, eta itsaski handia eta itsaso zakarra eragin zuen. Gainezka egiteko indizeak muturreko balioak baino baxuagoak izan arren (lehenengo itsasgoran, 00:11an ordu lokala, $I=5.3$ m eta $I_{max}=5.8$ m), olatuen ezaugarriak zirela eta, pasealeku eta malekoietan zipritin eta olatu-zaparrak izan ziren, bereziki itsasgoraren inguruan.

Asteazkena, hilak 30: Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 06etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 00etatik 06etara ordu lokala.

Otsaila

- Hilaren 1ean, gauean, elur-kota 1000 m-tik behera jaitsi zen eta azken orduetan 700-900 m inguruan egon zen. Enkarerrietan zaparrada txiki-ertainak bota zituen, gero Araba erdialdean ere bai. Hilaren 2an elur-kota 500-600 m inguruan egon zen eta zaparradak goizean bota zituen sarriago eta ugariago. Hala ere, kosta zitzaion zuritzea, izan ere elur-malutek



hezetasun handia zuten, eta pilatutako elur guztia aterruneetan urtu egiten zen. Arratsalde-gau partean elur-kota 300-400 m-ra jaitsi zen, ekaitz guneetan noizbehinka beherago. Elur-lodierak txikiak izan zen, Gasteizen 1 cm baino ez. Gauean ipar-mendebaldeko haizeak ahultzera egin zuen eta goi-geruzako aire hotza ere aldendu egin zen. Horregatik, elurra ez zen hain umela izan eta orduan errazago loditu zuen. Hilaren 3an, goizaldean, elurra egiten jarraitu zuen tarteka, baina gauean elur-kota 1000 m-ra igo zen. Gertaeran Arabako Lautadaren ekialdean eta isurialdeen arteko banalerroan 5-10 cm inguru elur pilatu zen.

Ostirala, hilak 1: Abisu Horia elurragatik barnealdean 21etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 2: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 500 m-tik gora 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 3: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 500 m-tik gora 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 15etara ordu lokala.

- Hilaren 2an, 00etatik 18etara, olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 4-4.5 m-ko olatuak altxatu zituen eta olatuen arteko periodoa 16-17 s-koa izan zen. Ipar-mendebaldeko haizeak, 7ko indarrarekin, itsaso oso zakarra eragin zuen. Olatuen ezaugarriak zirela eta, pasealeku eta malekoieta ziprztin eta olatu-zaparrak bota zituen, bereziki itsasgoraren unean (15:49 ordu lokala). Gauean olatuen altuera adierazgarria 4-5 m ingurukoa izan zen (Puerto de Pasaia: 5.06 m, Puerto de Bilbao: 4.48 m). Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen eta olatuen arteko periodoa 12 s-koa izan zen. Ipar-mendebaldeko haizeak, 5-6ko indarrarekin, itsaski handia edo itsaso zakarra eragin zuen.

Larunbata, hilak 2: Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 18etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.